"Doniane gaua" euskaldunak poeman

*"Orixe"ren **Euskaldunak** duen gauzarik ederrenetakoa gure herriko ohitura zaharren adierazpena da. Artzaintza eta nekazari munduko ohiturak behinik-pehin. "Orixe"ri, poema hortan, poetak bere barnetik izaten duen etorriaren bizitasuna falta bazaio ere, irudiak erabiltzean maisua zen eta euskaran zer esanik ere ez.*

*Duela zortzi urte, garai hontan eta orrialde hauetan aipatu genuen "Artajorra" kapituluaren azken parteko "Doniane gaua", gero **Gogoz** liburuaren 54. orrialdean jasotzen dena.*

Eguzkiak bere gaina hartzeaz urtaroa markatzen du, aldi berria hasten da bestea bukatuaz. Natura aldaketa horrek berakin dakar edo berari loturik daroa bizitza. Izaerazko urtaroa misterioz beterik agertzen zaio gizonari eta eguzki jaia ospatuko du, bere inguruan era askotako sineskerak bilduz. Baina, gaurko hontan, "Orixe"ren baitan agertzen diren irudimenak, ber berak idatzitako bertsoz hartuko ditugu, poemaren 197 bertsotik hasita.

Eguzkiaren jaia, aintzina, adinekoek maizago erabilia izango zen, baina orain haurrak dira batez ere jai hortaz gogotsuen ospatuko dutenak. Bespera gauean hainbeste ilusioz eraikitako txondorrari su emanaz:

Mutillek eman dute mendian atsalde,
bar, añar, arantz, ote, sugaiaren eske.
Aien poza nork esan, eskolarik gabe?
urtean geixagotan balitz Doniane!

Atari bakoitzean, gora da txondorra;
mutillak an daude, noiz agertuko garra.
Amonak ekarri du sutetik txinarra;
bela, su ta gar dago erregai igarra.

Amonak sutatik hartzen duen txingarra, su sakratua noski aintzinako sineskeran. Ritoaren funtsean, ilun samar ba daude ere, hor dira lekuko "Orixe"ren baitan; 213.ean jarraituko du:

Eskuz gona jaso du, suaren ertzetik,
erdi-isilleko otoitza jalkiz ezpaiñetik,
denen alaigarri, ta ez bera goibelik,
bildu ditun txingarrak ezin itzalirik.

*Erdi-isileko otoitzok izango dute zer ikusirik eguzki gurtzeaz Luzaide eta beste zenbait lekutan egin ohi diren otoitz tipiekin. Horien adibideak eman nituen **Bidez** deritzan liburuaren lehen artikuluan (21-24 orr.).*

*Baina, bestelako ritorik ere biltzen da suaren inguruan; zagi erretzearena adibide, Eguberrietan zenbait tokitan egiten den bezala, **Gogoz**—en aipatzen denaren antzera (ikus 25. orr.). Hortik ohartuko gara bi urtaro mugetako ospakizunetan sinbolo berdintsuak agertzen direla:*

Mutil-sail batek, ba du arazo larria:
artzen du, jarioa zedukan zagia;
ardorik ezin edan, pikez itsatsia,
sorgin igartuaren iduri bizia.

Ez da zagizaharrak ardorik edateko balio ez duelako, baizik uztaroa hurbiltzeaz uzta zaharra baztertzearen sinbolo gisako zerbait iduritzen zaigu. Baina, hara hor, une berean nola nahasten den sorginkeria eta horiek erretzeaz bada Euskal Herriko baserri eta plazetan kanta eta esaldirik ugari. Suaren inguruko jaialdiak hartu ditu bere goiak eta nahasten dira sorginkeri guziekin batean, San Joanen bildotsen beldurrak ez ezik, hitzak heurak nahaspilaturik arituko dira griego eta latinez. Erreketa hortan sorgin begia galtzea, eguzkiaren begia irabaztea edo begizko gaitza uxatzearen sinboloa izan behar du. Horregatik, edozein herritan izaten dira sorgin fama leporatzen zaien atso errukariak eta "Orixe"ren poeman bada Katalin izeneko bat, biharamunean jendea begietara so jarriko zitzaiona:

Doniane-goizean erne daude begiz
Katalin'ek berea galdurik ote egiz.
Uste zuten jun zela Akelar'a mendiz;
lapur-Mezan zioten biek eiten diz-diz.

San Joan egunez elorri hostoak jartzeaz ere bertso bat osatzen du. Naiz eta jakin toki elorria den bezala, beste batzutan lizarra ere izaten dela:

Ateen bi aldetan jartzen dute elorri
—bedeinkatua dala digute erakutsi—
oiñazturik ez daiten udaran erori.
"Elorri bedeinkatu"-k mugan du Gorri…

Beraz, Jentilen ospakuntzak kristau… bukatzen du "Orixe"… rren lekukotasunez … dunak poemaren parte hori:

Bedeikatua ditute gurutzak Mezatan,
ostots-aurka jartzeko alorren mugetan,
Aitonak asi dira birunda landetan,
uzta alaiak ikusiz begi-ninietan.

Juan SAN…

El poema **Euskaldunak** de Orixe, a nuestro… pobre en inspiración poética; pero lo que… es su contenido folklórico, con la recopilación… parte interesante del cancionero vasco y la… lenguaje en la que Orixe era un gran maestro… recoge los aspectos generales de la vida rural… anual y, naturalmente, recoge el período… versos en los que se dejan ver los simbolismos… agrupan en torno a la hoguera de la víspera… Juan. De manera insinuante, están presentes… cias brujeriles, la quema del pellejo, la oración… el mismo Akelarre en la culminación del fuego… donde se alcanza el delirante confusionismo… temor al cordero de San Juan para mezclar… gonza con el griego y el latín. Al final se recoge… solar de los ritos paganos para convertirse en… contra las enramadas se ponen las cruces… bendecidas en la misa. El lector observará el… cendente de esta parte del poema, dedicada a la… de San Juan, hasta la gran quema de la… cender paulatinamente al sosiego que le… cristianización de los ritos. Es quizás una de las… más acertadas del poema, y merece ser leída… días de la celebración del solsticio estival.

Udako solstizioa

Udako solstizioa atarian dugu.

Eguzkia tropiko batetan aurkitzen deneko garaiari, solstizio esaten zaio. Cancer-ekoa Ekainaren 21 eta 22 artean ematen dena da.

Capricornio-koa, berriz, Abenduaren 21 eta 22 artean. Lehengoari Ipar Hemisferioan, gurean, Udako solstizioa deritzaio, Abendukoari Negukoa esaten zaion bitartean.

Garai honek bere manifestaldi bereziak erakusten dizkigu euskal kulturan; gehien batez nekazal gizarte batekin itsatsirik aurkitzen diren agerpenak ditugu. Gurea orain dela urte gutxi arte nekazal gizarte izan baita.

Solstizioko ospakizun hauek kristautasuna azaldu aurretik datozkigula garbi dago, nahiz eta gero kristau kutsu nabari bat hartu. Horra hor, esaterako, kristau-egutegiak dituen bi jai nagusiak: Abenduaren 24 eta Ekainaren 24, Jesukristo eta San Juan Batatzailearen jaiotzak ospatzen dituztenak.

*Eta baita euskal egutegiak ere solstizioekin zerikusirik ba duela ondoko eredu honetan ikus daiteke, argi eta garbi: Udakoaren nila Ekaina dugu, eta Ekainak **Eguzki gaina** esan nahi du, hots, eguzkia gainean dagoenean.*

*Arabako herrietan era askotaz ospatu da garai hau eta, batez ere, San Juan eguneko bezperan egiten ziren jairik edo ekintzarik garrantzitsuenak. **Sua** eta **ura** eguneko gairik erabilienak dira.*

Suak garbitu, purifikatu egiten du, urtean zehar ingurura bildutako gaiztakeria erre nahi delarik. Hau dela eta, herrietako auzo eta baserri guztietan sutzarra pizten da, bertan denetariko egur erretzen dutelarik.

*Duela hilabetea, Aramaioko "Peruena" baserrian egon nintzen, **Juana Loiti** bertako amandrearekin bere haurtzaro eta gaztaroko oroitzapenetaz mintzatu nahi nuelarik.*

*Eta **San Juan sue** aipatu zidan.*

23.ko iluntzean baserrietako ortu guztietan bedar-zarraparrak, abarrak... batzen dira sua egiteko.

*Sua ihazko **San Juan sorta**—z pizten da. San Juan sorta, soloko produktuetaz egindako lore multzoa da eta bertan kipula, larrosa, krabelina, arto landarea, berakatza, lilia, Sanjuan bedarra... ikus daitezke. Ihazko San Juan egunean auzoko elizan bedeinkatutako sorta ganbaren egon da gorderik. Hurrengoko urteko sua piztu artean etxeko pertsona eta abereak osasuntsu gordetzen ditu sorta honek, etxea iriztu edo tximisten arriskutik zaintzen duen batera.*

Suak indarrik hartu du eta garren gainetik etxekoak saltoka hasiak dira. Eta gaurregun nork saltorako bere trebetasuna erakusteko egiten denak, duda izpirik ez, beste adierazpenik izan du aintzina: suak eskainitako eragin purifikatzailea bereganatu nahian ziharduen saltariak. Eta honetan ari direlarik kanta hau entzun daiteke:

San Juan, San Juan
arraultza bi kolkoan
beste bi altzoan.
Sugak eta zapuak erre, erre
artoak eta garia gora, gora.
Viva San Juan, gora!.

San Juan egunean baserrietako atarte guztiak iriez agertzen dira apainduak. Etxekojauna goizean goiz mendiratu da iri sendor baten bila, etxeko beste inor jaiki orduko garoa atartean eukitzeko.

Zertarako? Etxekojaunak iria ihintzak bustita dakar eta, sinesmen herrikoiak adierazten duenez, haren gainean ortozik dabilena bere osasuna indartzen ari da.

Beraz, uraren ezaugarria agertzen zaigu eredu honetan, Euskal Herriko hainbat herritan bezalaxe.

*San Juan eguna ospakizun haundikoa izan da Aramaion duela gutxi arte. Egun osoko jaia, noski. Eta baserritarrek elizara lehen aipatutako "San Juan sortak" eramaten zituzten, bertan bedeinkatzeko. Goizean, ateetako horrietan **arantza-lorez** egindako kurutze bana ipintzen zen. Kurutze honek sortaren betebehar berdinak zituen, hots, etxea gaitzetatik zaintzea. Bertan egunean ere, auzoko abadeak soloak bedeinkatzen zituen.*

Hasieran esan dudan legez, kristautasuna azaldu baino lehenagoko oinarriak dituzten rito eta ohitura hauek desagertzen ari zaizkigu. Baina zenbait lekutan oraindik maitekiro gordetzen da haien oroitzapena. "Peruena" -ko sukaldera Juanaren ilobak azaldu ziren eta konturatu ahal izan nintzenez, haurrak izan arren, amonak neri azaldutako kanta eta kontuen berri ba zuten. Eta honek poztu egin behar gaituela deritzait, oraindik gure iraganarekin ez dela erabat eten adierazten baitu.

José Mari VELEZ DE MENDIZABAL

Nos encontramos en pleno solsticio de verano, período que marca la posición del sol en uno de los dos trópicos. Esta fase, junto con la correspondiente a la de invierno, significan dos épocas del año que han tenido una tremenda importancia en la totalidad de las culturas del mundo. Importancia que, sin duda, va descendiendo al haber desaparecido la primacía de la sociedad rural, trayendo esto como consecuencia un cambio en la mentalidad del hombre que configura el pueblo llano.

La cultura vasca muestra, en torno a estas fechas, gran cantidad de ritos y costumbres, sobresaliendo —quizás— los que tienen o han tenido lugar la víspera y el día de San Juan, siendo la mayoría de ellos reliquias de un pasado pre-cristiano, y que hoy en día se nos presentan —motivado por el contacto de siglos con la Iglesia— recubiertos de una, digámoslo así, cierta pátina cristiana.

No hace un mes que escuchaba a la abuela del caserío "Perurena" de Aramaiona, unos versos que nos recuerdan el poder mítico del fuego solsticial, que destruye todo rastro de maldad, purificando aquello que se encuentra a su alrededor. En la estrofa podemos observar cómo